




ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA



**Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen tekniko arautzen duen dekretu-proiektuan bildutako gai nagusiei buruz egindako inkestaren emaitzak.**

2017ko azaroa



# Hitzaurrea

**Eraikinen Ikuskapen Teknikoei (EIT)** buruzko inkestaren helburu nagusia izan da Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretu-proiektuan bildutako gai nagusiei buruz **EAEko herritarrek eta etxebizitzaren alorreko eragile adituek duten iritzia ezagutzea.**

Gaia zein den kontuan hartuta, oinarrizko ezagutza teknikoa edukitzea garrantzitsutzat jo zen, ekarpen interesgarriak jasotze aldera. Horrela bada, parte hartzaileak erakartzeko, **etxebizitzaren alorrekin lotutako profesioletara bideratu zen** ahalegina. Ildo horretatik, hiru lurralde historikoetan kolegiatuta dauden eremu ezberdinetako hainbat eta hainbat adituk hartu du parte inkestan, eta hain zuzen ere, profesional horiek ordezkatzan dituzten enpresarien edo profesionalen elkarteak (arkitektoak, finka-administratzaileak, higiezin jabetzako agenteak,...) baliatu ditugu haiekin harremanetan jartzeko. Era berean, herritarren iritzia ere ezagutu nahi izan da, interes orokorrekoztat jotzen diren gaien inguruan.

Parte hartze prozesua irekia izan da une oro, **herritarren partaidetzarako ETXEBIZITZA plataforma** baliatu baita.





Inkesta 2017ko urriaren 30ean argitaratu zen, eta irekita egon da azaroaren 25era arte. Epe horretan, **eragile adituek betetako 116 galdera-sorta jaso ditugu eta herritarrek betetako 77 galdera-sorta.**





# ERAGILE ADITUEK betetako inkestaren emaitzak

## Inkestan parte hartu duten eragile adituen profila


Hona hemen parte hartu duten eragile profesionalen profila:




## 1. BLOKEA: EIT APLIKATZEA




**Adierazi (1etik 4ra baloratuta) zenbateraino den, zure ustez, lehentasunekoa EIT helburu hauek lortzeko**  
(1: ez du inolako lehentasunik; 4: erabateko lehentasuna du)







**Zer iruditzen zaizu EIT egiteko gutxieneko laginaren proposamen hau?: “gutxieneko laginak beheko solairu osoa, estalkipeko solairu osoa eta lurrarekin kontaktuan dauden solairu osoak (erdisotoak, sotoak, eta abar) hartuko ditu. Gainerako solairuetan, laginak, solairu bakoitzeko, solairuan dauden erabilera tertziarioko lokalen edo etxebizitzan % 60 hartuko du gutxienez”**







**Zer iruditzen zaizu 6 hilabeteko gehieneko epea proposatzea EIT egin eta Udaletxean aurkezteko?**






**EIT lehenengoz egin eta gero, zenbat urterik behin egin beharko litzateke berriz ere?**



**EIT egin ondoren, hartatik ondorioztatzen den esku-hartzea 1. mailakoa bada (berehalakoa), Udalari berehala jakinarazi behar zaiola uste duzu?**






## 2. BLOKEA: ERABILERA ETA MANTENTZE PLANA






# HERRITARREK betetako inkestaren emaitzak

# Inkestan parte hartu duten herritarren profila

Hona hemen parte hartu duten **partaideen profila**:



## Herritarrei eginiko inkestaren emaitza xehatuak



# Eraitza nagusiak

Hona hemen, laburbilduta, Eraikinen Ikuskapen Teknikoei (EIK) buruzko eraitza nagusiak, parte hartu duten kolektiboen arabera banatuta:

### **ERAGILE ADITUAK**

- Inkestan parte hartu duten eragile adituen %75ak egoki deritzo **50 urtetik gorako eraikinek, nahitaez, EIT egin behar izateari**. Eta ildo horretatik, %65arentzat, **EIT egiteko eta aurkezteko ezarri den epea ere egokia da** (urte 1 bizitegirako erabilera kolektiboa duten eraikinak eta 2 urte bizitegirako erabilera duten familia bakarreko eraikinak)
- EIT lehentasunekatzen jotzen da batez ere helburu hauek lortzeko (1etik 4ra artean 3,5eko balorazioa lortu dute):
  - ❑ Kaltearen zenbaterainokoa ebaluatzea, esku hartzeko beharraz erabakitzea, eta esku-hartze mota egokia gomendatzea.
  - ❑ Hautemandako kalteak eta haien arteko erlazioa sailkatzea larritasunaren arabera.
  - ❑ Ikuskapenean begiz hautemandako eta kanpo- zein barne-arrazoen, ohitura txarren, hutsegiteen edo ez mantentzearen ondorioz gertatutako kalteak eta akatsak identifikatzea.
- **EIT egiteko** Dekretuaren zirriborroan aurreikusitako **gutxieneko laginaren proposamena, egokia da** inkestan parte hartu duten adituen %62arentzat.
- Dekretuan bildutako zenbait alderdi betetzeko ezarri diren epeen inguruan, hona eraitzak:
  - ❑ **Behin lehenengo EIT eginda, beste bat egin beharko litzateke 10 urterik behin** (erantzunen %66).
  - ❑ **EIT egin eta Udaletxean aurkezteko gehieneko epearen inguruan, ez dago iritzi argirik**. Proposatutako 6 hilabeteko epea egokia da eragileen %43rentzat, baina beste %43k laburtu egingo luke epe hori.
  - ❑ EIT egin ondoren, hartatik ondorioztatzen den **esku-hartzea 1. mailakoa bada (berehalakoa), %52ren ustez, berehala jakinarazi behar zaio Udalari**.
  - ❑ **Zuzenketa-ziurtagiri bat aurkezteko gehieneko epeari dagokionez**, EIT egin ondoren ondorioztatzen den esku-hartzea 1., 2. edo 3. mailakoa denean (berehalakoa, oso premiazkoa edo premiazkoa), **iritzi orokorrik ez dago**. Horrela, %36arentzat 6 hilabetekoa izan beharko litzateke, 3 hilabetekoa %23arentzat, eta 6 hilabetetik gorakoa %19arentzat.
- EIT baten ondoriozko betebeharrak ez betetzeak ekarriko litzuzkeen **isunei dagokionez**, proposatutako kopuruak **gehiegizkotzen** jotzen ditu eragileen **%46ak, eta egokitzat %37ak**. Nahikoak ez direla uste duenik ere badago (%2).
- Inkestan parte hartu duten eragile adituen kopuru handi batek uste du **EIT edukitzea ezinbesteko baldintza dela etxebizitzak birgaitzearekin lotuta** EAeko Administrazio Publikoaren **laguntzak eskuratzeko** (iritzia eman dutenen %75ak).

- **EITei buruz dagoen informaziora sartzea publikoa eta doakoa** izan behar duela uste du %79ak.
- Adituen iritziz, proposatutako **kolektibo guztiek izan behar dute eskuragarri Erabilera eta Mantentze Plana.**
- **Erabilera eta Mantentze Plana eguneratuta izatearen erantzukizuna norena behar duen izan ez dago argi.**
- Azkenik, eragileen %67k uste du **udalak eska dezakeela Erabilera eta Mantentze Plana badagoela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztea.** Kontrako iritzia daukate %22k. Errekerimendu hori egiteko epearen inguruan, ez dago ordea, iritzi argirik: 3 hilabeteko gehieneko epea finkatzen dute %34k eta 3 hilabetetik gorakoa %29k.

## **HERRITARRAK**

- EITren alderdi nagusiei buruzko **herritarren iritzia bat dator, argi eta garbi, Dekretuaren zirriborroan jasotakoarekin.**
- Herritarren %71k egoki deritza **50 urtetik gorako eraikinek, nahitaez, EIT egin behar izateari, eta behin lehenengo EIT eginda, hurrengoa 10 urterik behin egiteari.**
- Era berean, herritarren %86k uste du **etxebizitzak birgaitzearekin lotuta EAEko Administrazio Publikoko laguntzak eskuratzeko EIT edukitzea ezinbesteko baldintza dela.**